

## **Irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmoa abiarazi du Topaguneak**

**Euskal Herri osoko 24 herritan egongo da, gaurtik hasi eta ekainaren 30era arte**

BILBO. Euskaltzaleen Topaguneak Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoaren zazpigarren edizioa jarri du martxan, zenbait euskara elkarte, udal liburutegi eta liburu dendarekin batera, eta hainbat Udal, Eusko Jaurlaritzaren kultura saila zein Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesarekin. Irakurri, Gozatu eta Oparitu ekimena gaur abiatuko da, Liburuaren Nazioarteko Egunean, eta Euskal Herri osoko 24 herritan egongo da ekainaren 30era arte.

Irakurzaletasuna bultzatzea xede duen egitasmo honek 'herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegin eta gozagarria azpimarratuz'. Aurten gorakada nabarmena izan du egitasmoak, iaz baino bederatzi herri gehiagotan jarriko baita martxan.

Urtero legez, Nazioarteko Liburu Eguna baliatu dute kanpainaren bosgarren aldia inauguratzeko

Egitasmoa tokian tokiko euskaldunon elkarteetan, udalen, udal liburutegien eta liburu dendan elkarlanari esker abiatuko da, eta herrietako eragileen arteko harremana bultzatzea ere nahi du. Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausu eman behar dira bertan parte hartzeko: Lehenengo pausoa irakurtzea da, euskaraz irakurtzea, eta horretarako herriko liburutegi publikora joan eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango da. Bigarren pausoa gozatzea litzateke, hau da, liburuak irakurritakoan liburutegira bueltatu eta fitxa sinple bat bete beharko da (zein izan den irakurritako liburua, zer inpresio eman digun eta abar). Fitxa hori bete ostean, liburuzainak erosketatxeke emango dio irakurleari, hitzartutako liburu dendan erabiltzeko. Eta azken pausua liburuak oparitzea da: lagun bati, senide bati, edo norbere buruari. Liburutegian jasotako txartelarekin, irakurleak euskarazko beste edozein libururen erosketaren %25a ordaintzeko aukera izango du.

Aurreko edizioetan bezala, gaur abiatuko da egitasmoa, Liburuaren Egunean. 'Uda aurreko hilabeteak baliatzen dira kanpaina sustatzeko, liburuen irakurketarako garai egokia baita', argitzen dute Topagunetik. Bi hilabeteko iraupena izango du kanpainak eta ekainaren 30era arte egongo da abantailak baliatzeko aukera.

Aurten eskualdekako hedapenean zentratu dira antolatzaileak. 'Aurreko urteetan ikusi denez, kanpainak eragin positiboa du herritarrek liburutegi publikoan egiten duten euskarazko liburu mailegu erabileran. Izan ere, egitasmoaren helburuetako bat da euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile bihurtzea', agertu dute Topagunetik.

Ekimenaren bueltan bestelako literatur jarduerak ere antolatuko dira, hala nola solasaldiak idazleekin, liburu azokak, irakurketa musikatuak eta abar.

